

HERNANDEZ, P. (2002)

*Los moldes de la mente. Más allá de la inteligencia emocional.* Tenerife: Tafor/Narcea.

Pedro Hernandez «Guanir» autoreak liburu berritzailea dakarkigu oraingo honetan. Bere ikerketa ibilbide luze eta oparoaren ondorioa da lan hau. Bere ekarpena garun-moldeen gainean egindako ikuspegia argitzea izan da, eta hezkuntzarako horren baliagarritasun praktikoa azaltzea. Moldeak ohiko jarrerak dira eta molde horien bitartez fokatzen eta interpretatzen dugu errealitatea. Egoera zehatzen aurrean daukagun ikuspegia eta jokatze erak dira. Egoeren aurrean gure gauzak ikusteko era propioa daukagu eta horrekin errealitatea interpretatu eta manipula dezakegu: gauzak positibo edo negatibo ikus ditzakegu, beldurtuta edo ausart egon gaitzke... Horietako jarrera bakoitza molde bat da. Horrela, liburuan hogeita hamar molde sailkatzen ditut, guretzat garrantzitsuak direnak modu konkretu batean sentitzeko garaian edo eraginkorrek izateko garaian.

Autorearen arabera, moldeak oso estuki loturik doaz emozioekin, eta, azken horien garrantzia sekulakoa da eguneroko bizitzan. «Guanir»-en irudikoz, emozioak beti gurekin daukagu edozein harremanetan: eskolan, lagunekin, bikotearekin, lanean... Gertatzen dena da hitzen edo zenbakien adimena ikustea errazagoa dela adimen emozionala ikustea baino. Konplexuagoa da, baina horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiago duenik.

Zentzu horretan, liburuan zehar moldeen garrantzia azpimarratzen da, adibide oparo eta ugarirekin hornituz. Esate baterako, hezkuntzarako ikuspegi interesgarria da hori guztia; izan ere, irakasleak bere molde propioak ezagutzen baditu, ikasleen moldeak ezagutzen lagunduko dio. Eta alderantziz ere bai, hots, haurraren moldeek ere beregan eragingo dute. Horren

onuraduna irakaslea da, horrek bere molde propioen kontzientzia hartzen lagunduko diolako. Horren haritik, egileak hezkuntzaren alderdi gizatiarrean trebatzeko beharra azpimarratzen du, baita horretarako bideak, tresnak eta estrategiak agertu ere. Izan ere, gaur egun alderdi teknologikoaren inguruan asko ikertzen eta sakontzen ari da, baina autorearen ustez, gerta daiteke hezkuntzaren muina dena —harremana, komunikazioa, emozioak, balioak...— alde batera uztea.

Hori guztia oso ongi antolatuta dago liburuan gai sakonak eta irakurterrazagoak tartekatuz. Horrela, lehengo hamazazpi kapituluak emozioak, balioak eta molde kognitibo-afektiboak zer diren agertzeko baliatzen ditu egileak 18. kapitulutik 33.era molde kognitibo-afektibo bakoitza azaltzen da sakonki. 34.etik 37.era emozioen eta moldeen arteko harremanaz aritzen da. Eta 38.etik 41.era moldeen aldaketarako bideak, estrategiak eta baldintzak azaltzen ditu «Guanir»-ek. Hori guztia iturri bibliografiko eta zientifikoak autorearen esperientziarekin uztartuz.

A. Huegun

GÓMEZ, J.C. (2007)

*El desarrollo de la mente de los simios, los monos y los niños*. Madril: Morata.

Gai honi buruz hainbat eta hainbat liburu ezberdin argitaratu dira. Hau horrela bada ere liburu honetan berezitasun batzuk agertzen dira. Horien artean hauek azpimarratzea ezinbestekoa ikusten dut:

Egileak hamaika kapituluetan adimenaren garapenari buruzko errepasso oso bat egiten du. Errebisio hau, gainera, oso atsegina gertatzen da erabiltzen duen hizkuntza hurbila, erakargarria eta ondo aukeratua delako.

Errepaso honetan, eboluzioa aztertzen duenean, denok zuhaitz berdin batetik etortzen garela defendatzen du. Zuhaitz horri adar berriak eta berezkoak sortzen zaizkiolarik, sorrera horien zergatiak azaltzen ditu.

Azterketa honen ondorioen artean simioak gizakien arbasoak ez direla klaru agertzen du. Simioak arbasoak izan beharrean lehengusu antzeko zerbait direla oso ondo azaltzen du. Azken hau erraten duenean, zera argitzeko asmoz: Urteetan eta urteetan zehar adar bakoitza bere kabuz garapen propioak lortzen eta konplexizatzen joan dela, horregatik eta horretarako bide berezkoak garatu dituelarik.

Gizakien adar berri horren eboluzioa dela eta ahalmen berri eta berezko batzuk garatzen doaz. Ahalmen berri horien artean objektuen pertzepzioa nola eta zergatik sortzen eta garatzen doan, baita kausalitatearen sorreraz eta garapenaz azalpenak ematen ditu, objektuen arteko erlazio

logikoetaz, sinbolismoaren sorreraren zergatiaz eta guzti honen garapenaz. Nola ez, hizkuntzaren ahalmenaren garrantzia azpimarratzen du eta, hori baino gehiago, hizkuntzaren kontzientziaren garrantzia.

Guzti hau, goian erran bezala, hizkuntza erakargarri eta atsegin baten bidez.

*A. Arribillaga*

EXLEY, K. eta DENICK, R. (2007)

*Enseñanza en Pequeños Grupos en Educación Superior. Tutorías, seminarios y otros agrupamientos.* Madril: Narcea.

Nola egin irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eraginkorrak talde txikiekin? Galder horri erantzun nahi dio liburu honek.

Autoreen arabera talde txikiekin lana egitea sekulako aukera da ikasle-entzako nahiz irakaslearentzako. Era horretan, liburuak xehetasun osoz agertzen ditu talde txikiekin lan egiteko gakoak. Lan honen alderik interesgarriena praktikotasuna da. Esan nahi baita adibide eta egoera errealek ugari ekartzen dituztela egileek orriotara liburua ahalik eta ulergarriena izateko.

Horretarako, hainbat ataletan banatuta dago lan hau. Lehenik, egileek, talde txikiekin irakaskuntza-ikaskuntza zer den agertzen dute, baita arrakasta lortzeko zein baldintza behar diren zehaztu ere.

Behin hau agertuta, ur sakonagoetan murgiltzen dira Exley eta Denick. Horrela, talde txikiak nola egituratu behar diren eta ikaskuntza zein programazio motak ahalbidetzen duen argitzen dute. Ondorioz teknika zerranda oparora eskaintzen dute. Hori guztia adibide askorekin eta xehetasunez.

Horren ondotik, taldeekin lan egiteko ariketa praktikoak aurkezten zaizkigu, batez ere, taldearen komunikazioa eta gertutasuna errazteko.

Hurrengo atalean liburuaren alde interesgarriena azaltzen digute autoreek. Hau da, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntzak (AOI) zer nolako hezkuntza oinarri eta zein ahalmen dituen esplikatzeko digute. Beraz, AOI-ren zazpi urratsak azaltzean gain, talde txikitan lan egiteko bide oparo bezala azaltzen zaigu, edukiak lantzeaz gain ikasleren hainbat gaitasun eta trebetasuna lantzeko eta garatzeko bide ezin hobea baita.

Azpimarragarri da ere ebaluazioari buruzko atala, jakin badakigulako ebaluazioa edozein ikas-prozesuan ezinbestekoa dela, baina batzuetan alboratu samar geratzen dela. Horregatik, hain zuzen ere, autoreok, ebaluatzeko garrantziaz ohartzen dute; irakasleak bere burua ebaluatu behar du, baita ikasleak, programak eta jarduerak ere. Hori guztia egiteko hainbat

ariketa, fitxa eta tresna ezin egokiagoak aurkezten dizkigute Exeley-ek eta Dennick-ek.

Eskertzekoa da ere, kapitulu bakoitzaren bukaeran landutako gaiaren inguruan agertzen den bibliografia, horren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero nora jotzeko laguntza bikaina eskainiz.

*A. Huegun*